

# Ahozko adierazpena eta dramatizazioa

## Haur Hezkuntzako irakasleen baliabide

*Garbiñe Argüelles Razquin*

Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

*Edu Zelaieta Anta*

Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila  
Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

DOI: 10.1387/tantak.14458

**GAKO-HITZAK:** GrAL, komunikazioa, ahozko adierazpena, dramatizazioa, Haur Hezkuntza.

### 1. SARRERA

Lehenik eta behin, lan honen jatorria aipatu nahi dugu. Izan ere, lerro hauen bidez aurkezten hasi garen lanak Gradu Amaierako Lan (GrAL) batean du jatorria; hain zuzen ere, Haur Hezkuntzako Gradua eskuratzeko GrAL batean. Hala, lana ebaluatzeko ardura hartu zuen epaimahaiaren gomendioari jarraitu diogu: jatorrizko lana artikuluko akademiko baten formatura egokitzeko ahalegina egin dugu.

Komunikazioa ahalbidetzen duten ahozko adierazpena eta dramatizazioa hartuko ditugu hizpide lan honetan. Izan ere, komunikazioaren bidez, ezagutzak, kontzeptuak, sentimenduak, ideiak edota emozioak transmititu eta partekatu ditzakegu pertsonok (Garcia del Toro, 1995; Sanz, 2005; Zabaleta, 2005). Halaber, Haur Hezkuntzako Curriculum Dekretuak dioen bezala, komunikazioa bizitzako erlazio guztien oinarria da, eta bereziki Haur Hezkuntzan komunikazioa oinarriak finkatzeko funtsezko elementua gertatzen da (Eusko Jaurlaritza, 2009). Horretarako, aurrerago ikusiko dugunez, ahozko adierazpena eta dramatizazioa berebiziko tresnak izan daitezke hezitzaileentzat.

Haur Hezkuntzan, haur bakoitzak ingurunearekin, irakaslearekin eta gainerako ikaskideekin komunikatzeko moduak bilatzen ditu, bere nahiak, sentimenduak, minak, beharrak eta abar adierazteko. Era horretan, komunikazio-gaitasunaren garapenak etapa horretan du abiapuntua, irakasleen

zereginetik zeresan handia izanik: irakasleari dagokio, haurrak egoki komunikatzen ikas dezan, hainbat bide eta aukera eskaintzea. Alde horretatik, Haur Hezkuntzako irakasleak gelan nola komunikatzen diren aztertzea interesgarritzat jo daiteke, irakasle profesionalentzat nola irakaslegaiatzat.

Ahozko adierazpenari gagozkiolarik, irakasleak eguneroko tresna izaten du ikasleekin komunikatzeko, bai eta haurrak elkarrekin komunikatzen trebatzeko ere. Hainbat egilek nabarmendu dutenaren arabera (García del Toro, 1995; Guerrero eta Trujillo, 2010; Sanz, 2005), gelako ahoko adierazpena garatzean, ahoko adierazpena hainbat hartzaile eragiteko ahalmen sozio-diskurtsibo garrantzitsua da: ikasleek mezu egokia transmititzeko gaitasun egokiak sortu eta erabili behar dituzte. Hori dela eta, irakasleek ahok jarduten dutenean, hainbat ezaugarri eta estrategia kontuan hartu behar dituzte:

Taula 1  
**Irakasleek ahoko komunikazioan erabiltzen dituzten ezaugarriak eta estrategiak**

Ikasleekin konfiantzazko harremana sortu	Publikoarekiko harremana kudeatu, hura parte hartzaile egin
Entzuleak behatu eta analizatu	Hitzen eragina kalkulatzeko
Hasiera eta bukaera	Giltzak, hitz jokoak erabili publikoa bereganatzeko
Entreteneigarria eta atsegina izan	Motibatu, interesa sortu
Hiztegia	Mezua modu erraz eta ulergarrian eman, egokitua
Sormena eta originaltasuna	Ahotsa aldatzeko eta keinuak sortzeko eta egiteko ahalmena izan
Koherentzia eta kohesioa	Mezuak modu logikoan esan, ideiak ordenean
Eskuen, gorputzaren eta begiradaren kudeaketa	Mezuari lagunduz, modu irekian jardun, entzule guztiak partaide eginez
Ahotsaren kontrola	Bolumen egokia erabili (ez oso baxua, ez oso altua). Bolumen aldaketak errekurtsio baliagarria
	Abiadura (erritmoa entzuleei egokitua: ez oso motela, ez oso azkarra)
	Tinbre egokia
	Tonua (emozioen isla), aldaketek monotonia ekiditen dute
	Ahoskera argia erabili

*Iturria:* Hernandez, 2011; Sanz, 2005.

Irakasleek haurren ikaskuntza gidatzeko ardua profesionala dutela esan daiteke. Brunerrek eta Vygotskyk (*in* Clemente eta Rosel (2000: 388 or) dioten moduan, helduek elkarrekintza markoak eskaintzen dituzte ikasleek ezagutzak eskura ditzaten, hezitzaileen laguntza eta elkarreraginaren tarteko (*cf.* Baquero, 1997).

Berebat, López-ek, Jerez-ek eta Encabo-k (2010) postulatu dutenaren arabera, ahozko adierazpenarekin batera komunikazioan bestelako komunikazio bide batzuek parte hartzen dute, ahozko adierazpena bera indartuz. Gisa horretara, Lapierrek eta Aucuturierrek azpimarratzen duten gorputzaren bidezko komunikazioa eta adierazpena ondorio afektiboz beteta dago (Pastor, 2002), eta dinamikoa (dantza, erritmoa, musika) plastikoa nahiz dramatikoak (bat-batekotasuna, dramatizazioa, interpretazioa) suerta daiteke.

Oinarrizko Curriculum Dekretuak dramatizazioaz dakarrena aztertuz, honakoa besterik ez dugu topatu Haur Hezkuntzako lehen zikloko (bigarren blokeko eta bigarren zikloko laugarren blokeko) edukietan: «Dramatizazio-, imitazio- eta dantza-jardueretan eta gorputz-adierazpeneko bestelako jolas batzuetan parte hartzeko interesa» (Eusko Jarularitza, 2009: 31 eta 34.or). Hortaz, zenbait egilerekin bat etorrita (Cañete, 2009; Motos, 2013), badirudi dramatizazioa gorputz adierazpen soiltzat hartzen dela edota curriculumeko zenbait gairen helburuak lortzeko baliabide didaktikotzat.

Oinarrizko Curriculum Dekretuaz Haur Hezkuntzako etapako bigarren zikloaz dakarrena aintzat hartuta, psikomotrizitateak gorputz hezkuntza barne hartzen du; rol jokoei, txotxongiloei eta antzeko jarduera hezigarriei ez zaie erreparatzen, horiek lantzeko adin-garai egokiena den arren (Aznar, 2006). Nolanahi ere, dramatizazioa gorputz adierazpena baino gehiago da; hau da, dramatizazio bat egiterakoan ez dugu soilik gorputz adierazpena (keinuak, begirada, aurpegi adierazpenak, gorputz jarrerak, espazioan orientazioa eta abar) erabiltzen, objektuak, materialak, lengoia ezberdinak, ahotsa edota mugimendua ere uztartzen baititugu (Gonzalez, 2006; Motos eta Navarro, 2013).

Dramatizazioari esker bizitza gai askoren iturri bilakatzen da; izan ere, dramatizazioa bizitzarekin esperimintatzea da (Pérez, 2004). Hori dela eta, dramatizazioa ikasleen ahozko zein idatzizko adierazpenak hobetzeko asmoz erabil daitezke, haien errealitatearen kontzientzia hartzen lagunduz, haien errealitatearen eta munduaren arteko erlazioa ulertzen lagunduz eta balio zein trebetasun sozialak sustatuz (García del Toro, 1995). Horretaz gain, dramatizazioak adierazpen askerako bideak ematen ditu jolasaren eta esperimintazioaren bidez, eta lengoia ezberdinetan gaitasunak garatzea ahalbidetzen du sormena bultzatuz. (Nuñez eta Navarro, 2007). Azken batean, lengoia ezberdinak (ahozkoa, plastikoa, erritmiko-musikala eta gorputzezkoa) erabiltzeagatik, integratzeagatik eta sinbolizazio prozesu bat izateagatik ezaugarritzen da dramatizazioa (García,1996).

Dramatizazioa hezkuntza-baliabide gisa erabiltzeak irakaskuntza-ikas-kuntza eredu motibatzaile bat erabiltzea ekar dezake, ezagutza jasotzeko giroa aspergarria eta monotonoa izan ez dadin. Era berean, ikasleak modu ludiko batean gogoz jartzen ditu dramatizazioak, eta alderdi psikologikoak, emozionalak, psikomotorrak, sozialak nahiz sormenezkoak garatzen laguntzen du. Gauzak horrela, dramatizazioa baliabide pedagogikotzat hartuta, konstruktibismoarekin, interakzionismoarekin eta deskubrimenduaren bidezko ikaskuntzarekin erraz lot daiteke gelako jarduna.

Horretarako, garrantzitsua da Haur Hezkuntzan irakasleek errekurtso dramatikoak ezagutzea zein gelan egoki aplikatzen jakitea, sormena, konfiantza eta autoestimua bultzatzeko nola jarrera bortitzak edota segurtasunik eza apaltzeko. Orobat, irakasleek ikasleak ezagutzara bideratu behar dituzte, haurren mugak eta zailtasunak aurkitzen lagunduz eta autonomia-rantz bultzatuz (Onieva, 2011).

## 2. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Ahozko adierazpenaren eta dramatizazioaren marko teorikoa azaldu ondoren, lan honek dituen jomugak definitzeari garrantzitsua deritzogu; izan ere, helburu horien arabera garatuko dugu ondoko azterlana. Esan dezagun, beraz, honako bi xede nagusi hauek dituela lanak:

1. Irakasleek komunikatzeko baliabide horiekin lor ditzaketan abantailak aztertzea.
2. Ahozko adierazpenaren eta dramatizazioaren inguruan hainbat irakasleren iritziak eta ekarpenak analizatzea hezkuntza-errealitatea hobeki ezagutzeko asmoz.

Helburuak plazaratutakoan, baieztatu eta ezeztatu beharreko hipotesiak ere formulatu behar ditugu jarraian. Alde horretatik, aztergai hartu ditugun ahozko adierazpenaren eta dramatizazioaren gaineko hiru uste argitu nahi ditugu lanaren bitartez; honako hauek, hain zuzen ere:

1. Ahozko adierazpena egunerokotasunean momentu guztietan presente dago.
2. Dramatizazioa askotan erabiltzen da, baina ez dauka oinarri teoriko finkorik.
3. Dramatizazioa oro har ez da baliozko tresna pedagogikotzat hartzen hezkuntza-komunitatean.

## 3. METODOA

Literaturak dioskuna aintzat harturik, orain arteko erreferentziek aipatutako ideiak errealitatean nola gauzatzen diren aztertzeari ekingo diogu.

Horretarako, lehenik, Haur Hezkuntzako praktikei buruzko datuak nondik nora eskuratu ditugun azalduko dugu metodoaren atal honetan.

Jakinekoa denez, estu lotuta joan ohi dira metodoaren kontuak eta lanaren helburuak. Hori dela eta, honako galdera hauek izan ditugu gogoan: zer deritzote Haur Hezkuntzako irakasleek ahozko adierazpenari zein dramatizazioari? Nola erabiltzen dute Haur Hezkuntzako irakasleek ahozko adierazpena eta dramatizazioa euren egunerokotasunean? Zein estrategia edo teknikak erabiltzen dituzte?

Galdera hauei nolabaiteko erantzunak bilatzeko, Araban eta Nafarroan dauden hiru ikastetxe kontzertatutako bost irakasleren iritziak eta ekarpenak jaso ditugu. Irakasle horiek hautatzeko irizpidei dagokionez, batez ere aztergaiarekiko interesa agertzeari eman diogu lehentasuna. Nolanahi ere, badira bestelako kontu batzuk esplizituki aipatu nahi ditugunak: adin ezberdinetako irakasleak dira; lan-esperientzia luzeko eta laburreko profesionalak daude; ardura-karguren batean ari diren irakasleak (zuzendaritzan nahiz koordinazioan) eta ardura-kargurik gabeko irakasleak dira; HHko lehen zikloan eta bigarren zikloan ari diren hezitzaileak daude. Bestela adierazteko, lagin xumea bada ere, hainbat nabardura pertinente egin daitezke irakasle berriemaileen artean.

Datuak eskuratzeko prozedurari dagokionez, Haur Hezkuntzako Graduko azken kurtsoko hiru hilabeteko praktikaldia baliatu dugula esan beharrean gaude. Hala ere, arestian adierazi dugun eran, praktikaldian jasotako datuak osatzeko, gradua burututakoan, beste bi ikastetxetara jo dugu, gutxira bost irakasleren ekarpenak analizatuta. Datuak lortzeko tekniken aldetik, aldiz, ikerkuntza kualitatibora jo dugu. Izan ere, oraintsu agertu ditugun irakasleekin bi tresna kualitatibo erabili ditugu datuak eskuratzeko: elkarrizketa eta saio baten bideo-grabazioa (azken honen kasuan, zuzeneko behaketa ere baliatu dugu, *in situ*). Gauzak horrela, elkarrizketak zein ikusentzunezko baliabideak erabiliko ditugu irakasleen iritzien eta praktiken gaineko analisisia egiteko, betiere marko teorikoan azal dutakoarekin alderatuz.

Behaketen bidez azterlana eskola-testuinguruan bertan gauzatu dugu: ikasle-irakasleak zein elkarren arteko harremanak ikertu ditugu. Saiatu gara, hartara, bizi izandako hezkuntza-errealitatea ulertzen eta interpretatzen (Valles, 2003). Elkarrizketen aldetik, berriz, jaso dugun informazioa ezagutu, alderatu eta interpretatu dugu. Diskurtoaren analisiarekin (Van Dijk, 2000) estuki lotua den prozesu horrek ideia nagusiak identifikatzea ahalbidetu digu. Azkenik, behaketen eta eztabaiden bitartez erdietsi dugun informazioa kategoriatan antolatu dugu (Rodríguez, Gil eta García 1996).

Hurrengo taulan deskribatuko ditugu irakasle berriemaileen ezaugarri nagusi zenbait, haiekin datuak eskuratzeko tresnak eta prozedura bakoitzaren helburua:

Taula 2  
Irakasleen ezaugarriak, tresnak eta zertarakoak

Irakasle berriemaileak	Irakasleen ezaugarriak	Datuak eskuratzeko tresnak	Metodoaren zertarakoak
Bost urteko gelako irakaslea (Kodea: I-1)	<ul style="list-style-type: none"> <li>— 26 urte</li> <li>— 4 urteko lan-esperientzia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Elkarrizketa (ikus 1. eranskina)</li> </ul>	Ahozko adierazpenak eta dramatizazioak bere iritziz, Haur Hezkuntzan duten papera, garrantzia, egoera eta erabilera aztertzeke.
Hiru urteko gelako irakasle (Kodea: I-2)	<ul style="list-style-type: none"> <li>— 51 urte</li> <li>— 25 urteko lan-esperientzia</li> <li>— Zuzendaritzako partaidea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Elkarrizketa (ikus 1. eranskina)</li> </ul>	Ahozko adierazpenak eta dramatizazioak bere iritziz, Haur Hezkuntzan duten papera, garrantzia, egoera eta erabilera aztertzeke.
Bi urteko gelako irakaslea (Kodea: I-3)	<ul style="list-style-type: none"> <li>— 30 urte</li> <li>— 7 urteko lan-esperientzia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Elkarrizketa (ikus 2. eranskina)</li> </ul>	Ahozko adierazpenak eta dramatizazioak bere iritziz, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan bereziki, duten papera, garrantzia, egoera eta erabilera aztertzeke.
Bi urteko gelako irakasle	<ul style="list-style-type: none"> <li>— 44 urte</li> <li>— Haur Hezkuntzako koordinatzailea</li> <li>— 10 urteko esperientzia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Zuzeneko behaketa (bi urteko gelan)</li> <li>— Ikus-entzunezkoa: Bideo grabazioa</li> </ul>	«Bubu eta Bembe elefantea»ren ipuina kontatzean ahozko adierazpena zein dramatizazioa nola lantzen dituen aztertzeke.
Urte bateko gelako irakaslea	<ul style="list-style-type: none"> <li>— 27 urte</li> <li>— 3 urteko lan-esperientzia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Zuzeneko behaketa (urte bateko gelan)</li> <li>— Ikus-entzunezkoa: bideo grabazioa</li> </ul>	Psikomotrizitate saio baten azalpena ematean ahozko adierazpena nola lantzen duen aztertzeke.

*Iturria:* egileek egina.

Elkarrizketei dagozkien datuak behar bezala analizatzeko asmoz, honako kodeak erabiliko ditugu irakasleen ahotsak txertatzen ditugularik: I-1, I-2 eta I-3. Izan ere, teknika kualitatiboetan egin ohi denez, partaideen iritzia diren ahotsak txertatuko ditugu bereziki nabarmenak edota esanguratsuak direnean, betiere analisiaren lagungarri.

## 4. EMAITZAK

Atal honetan, lanean lagundu diguten irakasleek ahozko adierazpenaz eta dramatizazioaz dituzten ikusmoldeak analizatuko ditugu, bai eta praktika zehatzak nola gauzatzen diren aztertu ere. Horretarako, bildu dugun informazioa honako lau dimentsiotan sailkatuta emango ditugu emaitzak: ahozko adierazpena eta dramatizazioa Haur Hezkuntzan, adierazpena eta dramatizazioa lantzeko egoerak zein baliabideak, ipuina kontatzeko estrategia komunikatiboak bi urteko gelan eta psikomotrizitate saioetan komunikazioa sustatzeko estrategiak urte bateko gelan. Halaber, dimentsio batzuetan eskuratu ditugun datuak zenbait kategoriatan sailkatu ditugu.

Has gaitezen, beraz, lehen dimentsioko kategoriei dagozkien emaitzak aurkezten.

### 4.1. Ahozko adierazpena eta dramatizazioa Haur Hezkuntzan

Dimentsio honen barruan, irakasleek gaiak dakitena, ahozko adierazpenak eta dramatizazioak duten papera nahiz curriculumak dakarrena aztertuko dugu. Hori dela eta, oraintsukoaren araberrako hiru kategoriatan antolatuko ditugu emaitzak.

#### 4.1.1. *Irakasleek ahozko adierazpenaz eta dramatizazioaz dakitena*

Hiru irakasleak bat datoz esatean ahozko adierazpena eta dramatizazioa umeak eta helduak elkarrekin komunikatzeko modua dela. Maila kontzeptualean, definizioak emateko garraian-eta, ez dago erabateko adostasunik, nahiz eta konbergentzia puntu nabarmenak topatu ditugun. Esaterako, I-2-k dramatizazioaren egiteko nagusia ahozko hizkuntzaren zerbitzuko dakusa, eta egunerokotasunean hainbat egitura linguistiko barneratzeko edota eskolan gertatu beharreko ikaskuntza bermatzeko. I-1-k dramatizazioa ahozko hizkuntzarekin lotua dagoela esaten badu ere, bestelako ikuspegi (autonomoago) bat adierazi du:

*Dramatizazioari dagokionez, gorputz hizkuntza eta ahozko hizkuntza eta bestelako hizkuntzak eta gaitasunak bateratzen ditu (I-1)*

0-3 urteko etapan umeen hizkuntzak lehenengo pausoak bizi ohi ditu. Etapa horretan hizkuntza garatze bidean dagoela eta bide horretan irakasleak erreferenteak izan behar direla azpimarratu dute, haurrek neurri handi batean imitazioz ikasten baitute. Alde horretatik, hizkuntzaren gaineko prestakuntza eta ezagutza lagun, I-3-k definizio mamitsuak eman ditu hitzen bidez gertatzen den komunikazioaren hainbat alderdiz: semantikaz (esanahi argiak dituzten hitzak bilatu), pragmatikaz (hizkuntzaren fun-

tzioak kontuan hartu erabiltzen den momentuaren arabera), fonologiak (fonemen, soinuen egitura, banaketa eta sekuentzia ezagutu eta ondo erabili), morfosintaxiaz (gramatika, egitura zuzenak erabili) eta ezaugarri suprasegmentalez (intonazioa eta melodia landu).

#### 4.1.2. Ahozko adierazpenak eta dramatizazioak duten papera

Bat datoz hiru irakasleak esatean biak direla garrantzizko arloak Haur Hezkuntzan. Nolanahi ere, ahozko adierazpena dramatizazioaren gainetik dago: hezkuntza-etapa horretan haurrak ahozko hizkuntza barneratzen ari-tzen dira eta horretarako oinarriak finkatzen dituztelako. Hori dela eta, egu-nero eta une oro hainbat estrategia erabiltzea komeni da ahozko adierazpen egokia sustatzeari begira.

Dramatizazioari eman ohi zain papera dela eta, ikusmolde kritikorik (I-1) topatu dugu bildutako informazioan. Izan ere, hizkuntzaren eta tradi-zio akademiko luzeagoa duten arloetan ez bezala, dramatizazioak ez dauka funtsezko paperik haurren heziketan, nahiz eta pertsonen garapen integra-lerako oso baliabide ahaltsua izan daitekeen, gaitasun ugari aktibatzea era-giten duena.

*Hezkuntza komunitateko partaideek garrantzi gehiago ematen diete ezagutza akademikoak deitzen dituzten horiei, adibidez, dramatizazioari baino (I-1)*

Hartara, dramatizazioaren gaineko kontzeptuak eta praktikak tradizioak baldintzatuak daude egun. Ikuskera horiek direla medio, arestiko diskurtso kritikoarekin jarraituz (I-1), dramatizazioa lantzea hezkuntza formaletik kanpo kokatzen omen dute hainbat irakaslek, edo, ohiko hezkuntzatik al-dentzean, lan eta prestakuntza handiagoa eskatzen omen du dramatizazioa-ren inguruko jarduerak sortzeak eta, are gehiago, horiek neurtzeak eta eba-luatzeak.

Haur Hezkuntzako lehen zikloan, baina, kontuak franko aldatzen dira (I-3). 0-3 bitarteko ikasleekin lan egitean, hitza edozein irakaskuna-ikas-kuntza prozesua garatzeko ezinbestekoa bada ere, maiz haur txikiekin hi-tzezko komunikazioa zailago gertatzen da, eta ahozkoa ez den kode bat bilatzeko beharra dago, hala nola aurpegi adierazpenak, eskuko keinuak, gorputz osoko keinuak, eta abar.

*Gure egunerokotasunean daude dramatizazioari lotutako alderdiak: abestiak abestean, ipuinak antzeztean eta kontatzean, errutinaz alda-tzeko abestiak keinuekin abestean (I-3)*

Haur Hezkuntzaren etapa osoan presente badago ere, lehen zikloan ga-rrantzi handia du gorputz hezkuntzak: batetik, lehen mailako komunikazio-



bide; bestetik, hitzezko komunikazioa errazteko eta hornitzeko bide. Hari beretik, ideien komunikaziotik haratago, haur txikitxoan garapen emozionalerako ere munta handiko tresna izan daiteke dramatizazioa, eta «kode emozional gisa» ere definitu du I-3-k.

#### 4.1.3. *Curriculumak gaiak dakarrena*

Adostasun bildu dugu berriz ere kategoria honetan: hiru irakasleek argi dute komunikazioak isla garbia eta esplizitua duela Haur Hezkuntzako Curriculumean. Izan ere, dokumentu ofizialak dituen hiru esperientzia eremuetatik, eremu oso bat dagokio komunikazioari eta adierazpenari. Nolanahi ere, bertan gorputz hezkuntzaz eta hizkuntza plastikoaz mintzatzen den arren, ahozko adierazpenak protagonismo nabarmena du.

##### *Ahozko hizkuntza erregina da curriculumean (I-2)*

Curriculumak moldatzeko beharraz ohartarazten duen ahotsik ere bildu dugu (I-1 eta I-2), dramatizazioa, berez, esplizituki, ez baita agertzen. Azkenaldi honetan hainbat kontu aldatzen hasi badira ere, badirudi «oraindik» dramatizazioa antzerki mota jakin batekin lotuta ikusten dela eta, lehenago esan dugun moduan, sarritan hezkuntza formalek kanpo. Horren ondorioa da curriculumean leku propiorik ez izatea, nahiz eta, praktikan, dramatizazioa uste baino asie gehiagotan baliatzen den, jakitun eta jakin gabe.

Dramatizazioa behar den bezala kontuan hartua izan dadin, curriculumaren bultzada ezinbestekotzat jo dute. Curriculumak moldatuta, eskoletako hezkuntza planetan sarbide errazagoa izango luke dramatizazioak, eta Haur Hezkuntzako irakasle bakan batzuen afera izaterari utziko lioke.

*Aldaketa teorikoa egin eta gero, errealitatera salto egin behar da, eta horretarako, Haur Hezkuntza eszenatoki pribilegiatua da (I-1)*

#### 4.2. **Adierazpena eta dramatizazioa lantzeko egoerak zein baliabideak**

Erabateko adostasuna dago ahozko adierazpena lantzeari dagokionez, zeren eta, Haur Hezkuntzaz ari garen heinean, hizkuntza une oro egoki baliatu behar delako diskurtso argia topatu dugu elkarriketetan. Gainera, haur ugari eskolan bertan (bigarren edo hirugarren hizkuntza den) euskara ikasten dutela aintzat harturik, are beharrezkoa dirudi eskolako hizkuntza era egokian eta komunikatiboan ikastea nahiz irakastean, egunerokoa bidez. Hain zuzen ere, ikasgelako errutinak direla eta, ohiko egoera baliabide pedagogiko-didaktiko bihurtzeko trebe agertu behar du irakasleak.

Ahozko adierazpena bultzatzea irakaslearen jarrerarekin estuki lotua dago, bildu dugunaren arabera.

*Guk izan behar dugu haurrei komunikatzeko aukerak eman behar dizkietenak (I-1)*

Ahozko adierazpenak bi norabide jakin ditu, bi trebetasun mota: mintzamena eta entzumena. Bietan trebatu behar dute ikasleek, baldin eta ahozko hizkuntzaz behar bezala jabetuko badira. Ahozko hizkuntza garatu ahal izateko, haurren hitza errespetatzeaz gain, elkarrizketarako tartea espezifikoak edota ahozko adierazpenaren txokoa sortzea bezalako baliabideak erabili daitezke, egoera sozialetan komunikatzen ikasteko (txanda hartu eta eman, adibidez). Bestalde, irakasleek ikasleei hitz egiteko denbora gehiago uztearen komenientzia aipatu dute elkarrizketatuek.

*Galdera irekiak egin behar dizkiegu, erantzuteko denbora eman behar diegu, adierazteko eta norbere bizipenak kontatzeko aukera eman behar diegu (I-2)*

Ahozko adierazpena eta dramatizazioa uztartzeko auziaren aldetik, baliabide nagusi bat aurkitu dugu: ipuina. Ipuina tresna ahaltsua da haurrak motibatuzeko, entzuketa aktiboa garatzeko, parte hartze aktiboa izateko; izan ere, ipuinaren fantasiaren bitartez, haurrek aukera dute beste istorio batzuk bizitzeko, beste errealitate batzuk ulertzeko, hizkuntzazko egiturak eta prosodia barneratu bidenabar. Ipuinak komunikazioa modu globalean jorratzeko parada eskaintzen du, hitzez eta keinuz.

Ipuinari etekin pedagogikoa ateratzeko asmoz, baina, hainbat estrategia hartzea komeni da. I-2-k, esaterako, lehenengo hiru egunetan ipuina dramatizatzen dute gelan, irudiak erabili beharrean. Era horretan, hiztegia barneratzen dute eta pertsonaiak era askeagoan imajinatzen dituzte. Bestela, irudiak ikustean eta, haurrak segituan geratzen dira irudi zehatzekin, eta horrek haien sormena murrizteko arriskua dakar. Dramatizazioarekin keinuak, esaldiak, estrukturalak barneratzen doaz eta ipuina kontatzen hasten denean, umek berek zenbait estruktura badakizkitez eta laguntzen dute.

#### **4.3. Ipuina kontatzeko estrategia komunikatiboak bi urteko gelan**

Bi urteko gelako beste irakasle batek ikasleei ipuin bat kontatzean ahozko adierazpena zein dramatizazioa nola lantzen dituen aztertuko dugu oraingoan.

Hasiera eta bukaera markatzeko, hainbat abesti erabili ditu; ipuina kontatzen hasi aurretik, ikasleak bereganatzeko eta haien arreta lortzeko erabilitako abestia honakoa izan da: «dilin-dalan, dilin-dalan, ipuina ordua

da, ireki begiak, belarriak, eta ahoa itxita». Ekintzari amaiera emateko ere, ipuina kontatzez bukatu eta «ikusi-ikusi han» elefantearen abestia abestu dute, ipuinaren protagonista den elefantearekin lotuta.

Horrekin, ikasleekin konfiantzazko harremana izatea lortu du, ipuina adi entzuteko prestatu baitira eta partaide egin baititu. Gainera, ipuineko hainbat momentutan haien parte hartzea eragin du, lurrak dar-dar eginez eskuekin lurra joz eta ipuinean elefanteek besarkada ematean berak haurrei eman die, besteak beste.

Entzuleak behatzen eta analizatzen dituela ere ikus dezakegu. Bere hitzek eta kontakizunak entzuleengan sortu duten efektua kontuan hartuz, bere jarduna bideratu baitu, ipuinaren gertakizun batzuei denbora gehiago emanaz, haurren parte hartzea luzatuz, eta abar.

Kontaketa osoa entretenigarria eta atsegina egiten saiatu da, entzuleak esna eta interesarekin mantendu dituelako. Keinuak eginez, bolu-mena aldatuz, lektik altxatuz, beraiekin abestuz... orokorrean paperean sartuz, umeak motibatzen eta haien arreta bereganatzen saiatu da. Nahiz eta ipuinaren istorioa bertako testua literalki jarraitu gabe kontatzen duen, bertako haria jarraitu du, koherentziaz eta kohesioz, mezuak modu logikoan sortu eta ideiak ordenan kontatu dituelarik eta ipuina bere egin duelarik.

Hiztegiari dagokionez, ikasleen ulermen mailara egokitutako hiztegia erabili du, haien erritmoetara, beharretara eta adinera egokitutakoa, sinplea, erraza eta ulergarria. Aipatzekoa da, ipuin hau behin baino gehiagotan kontatu dela, eta haurrek istorioa aurretik ezagutzen dutela, mezua errazago ulertu dezaketelarik.

Horretaz gain, sormena eta originaltasuna ere erabili dituela esan dezakegu, bai keinuetan, baita ahotsean ere. Keinuei dagokienez, eskuen eta gorputzaren kudeaketa egokia izan da, hitzei lagunduz keinuak egin baititu. Ipuinean agertzen ziren animalien edo ekintzen keinuak irekitasunez egin ditu eta mezua errazago ulertzeko balio izan du. Gainera, begiradarekin, ikasle guztiak partaide sentiarazi nahi izan ditu.

Ahotsaren kontrolari gagozkiolarik, bolumen egokia erabili duela esan dezakegu, ikasleak desioz eta modu atseginez entzuten egotea lortu duelarik. Horretaz gain, bolumen aldaketak erabili ditu esaldiak nabarmentzeko, adibidez, izenburua esatean, bufaloekin topo egitean, Bembe gurasoak bilatzeko oihukatzen dituenean, Bembe negarrez triste dagoenean...

Abiaduraren kasuan, erritmo lasaia erabili du, haurrek ongi uler zezaten. Isiluneak ere momentu gakoetan egin ditu, arreta gehiago erakartzeko, adibidez, «baina bat-batean...» esatean Bembe bakarrik geratzen denean, Bubu laguntzera agertu denean, Bubu eta Bembe animalia ezberdinekin topo egin behar dutenean, eta abar.

Tonuari erreparatuz, aldaketak egin ditu pertsonaia bakoitzaren ahotza egiteko eta protagonistaren sentimenduak adierazteko, hala nola Bembe triste eta arduratuta dagoenean, Buburen alaitasunezko eta laguntasunezko

hitzak esatean, bufaloen eta gazelen ahotsa egitean eta abar. Horrela, monotonia ekiditen saiatu da, betiere ahoskera argian.

Ipuina kontatzean eta aipatu dugun moduan, komunikazio horretan bestelako komunikazio bideak ere erabili ditu, hala nola gorputza, dinamiko (dantza) eta dramatiko (interpretazio). Horiek ahozko adierazpena indartzeko asmoz erabili dituela esan dezakegu. Alde horretatik, irakasle horrek dramatizazioa erabili duela esan daiteke, gorputza, ahotsa, ipuina euskarri moduan, espazioa eta denbora kontuan hartuz, nolabait ipuina antzeturik. Gisa horretara, ikasleen gaitasunak indartzen saiatu da, transmititu nahi ziena askatasunez adierazten eta komunikatzen ahalegindu delarik.

#### 4.4. Psikomotrizitate saioetan komunikazioa sustatzeko estrategiak urte bateko gelan

Ondoren, urte bateko gelako irakasleak astean bitan egiten duen psikomotrizitate saio baten azalpena ematean ahozko adierazpena nola lantzen duen aztertuko dugu. Zeregin horretarako, irakaslearen jarduna marko teorikoaren argitan analizatuko dugu; hau da, irakasleak ahoz jardutean, komunikazioa eraginkorra izan dadin, kontuan hartzen dituen hainbat ezaugarri ikusiko ditugu.

Psikomotrizitate gelara sartu bezain laster, haur guztiak paretatik gertu eseri dira eta irakaslea haien aurrean kokatu da guztion arreta lortzeko asmoz. Azalpena ematen hasi denean, ikasleak bereganatzeko eta adi mantentzeko helburuarekin azalpenaren hasieratik galderak luzatu dizkie, hala nola «zer moduz zaudete? Badakizue nora etorri garen? Zer dira hauek? Era horretan, ikasleekin konfiantzazko harremana lortzen saiatu da, eta haien arreta eta parte hartzea lortzeko intentzioa du. Begirada ere, ikasleak partaide egiteko eta azalpena jarraitzeko helburuarekin erabili du, haur guztiak begiratu. Horretaz gain, koltxonetetara nor etorri diren ikusi du, ume bakoitzaren izena esanez eta buruan ukituz. Modu horretan, ikasleak protagonista eta partaide egin ditu.

Azalpena entretenigarria eta atsegina egiteko ahalegina nabarmena da, haurrak esna eta interesarekin mantentzeko galderak luzatu eta erantzunak entzun dituelako eta ideiak eman dizkielako. Horren adibide honako azalpen zatia izan daiteke:

*Irakaslea: bueno, eta zer egingo duzue koltxonetetan?*

*Haur batek: salto..*

*Irakaslea: Saltooooo (haurraren erantzuna nabarmen indartuz).*

*Irakaslea: Eta zer gehiago? Egingo dituzue dorreak eta botako dituzue?*

*Haurra: Bai.*

Irakasleak entzuleak behatu eta analizatu dituela ere ikus dezakegu. Ekintza komunikatiboa planifikatu eta umeen erreakzioen arabera bideratu du, zerrenda pasatu, arauak errespetatu eta sarrera eman dielarik. Era horretan, ikus daiteke mezuak modu logikoan sortu eta azaldu dituela eta ideiak ordenan kokatu dituela, koherentziaz eta kohesioz. Azken momentuan, bere hitzek erantzun handia ez dutela izan ikustean, galdera bera bitan egin du eta zuzenean koltxonetak botatzeko sarrera eman die, umeak gelditu eta arretatsu denbora gehiago mantentzea zaila dela ikusi baitu.

Horretarako guztirako, hiztegi sinplea erabili duela esan dezakegu, umeek modu errazean ulertzeko modukoa, egunerokoa, sinplea eta argia (koltxonetak, dorreak, salto...).

Eskuen eta gorputzaren kudeaketari dagokionez, haurren aurrean eserita dagoelarik, ahozko mezuari laguntzeko keinuak irekitasunez egin dituela esan daiteke. Hitzak indartu ditu, esaten duena eskuen bidez irudikatuz, adibidez, arauak errepasatzean, dorreak egin eta bota ditzaketela esatean, zutitzeko esatean eta abar.

Azkenik, ahotsaren kontrolari erreparatuz, bolumen altu samarra erabili duela aipatu behar da. Bolumen aldaketa gutxi egin dituen arren, tonu alaia eta indartsua erabili du, momentu batzuetan aldaketak egin dituelarik, galderak egitean, erantzunak indartzean, bereziki. Era horretan, monotonia ekiditen saiatu da. Abiaduraren kasuan, azalpena nahiko erritmo azkarrean egin duela esan dezakegu eta isilune gutxi kudeatu dituela esaldiak edo hitzak indartzeko. Azkenik, ahoskera argia erabili duela aipatu behar da, eta mezua ondo ulertu da.

## 5. ONDORIOAK

Azterlana egiteko elkarrizketatu ditugun irakasleen artean ez dago argi zein den dramatizazioaren papera: ahozko adierazpenaren zerbitzuko jarri ala bestelako gaitasun zein alderdi batzuk ere lantzeko tresna autonomoagotzat hartu. Nolanahi ere den, dramatizazioa eta ahozko adierazpena elkarlotuta daudela ikusi dugu eta bata bestearen lagungarri izatea gomendagarria dela irakaslearen lanbidean.

Haur Hezkuntza ohitura emozional egokiak garatzeko garai espresa da, ikaskuntza emozional garrantzitsuenak lehenengo sei urteetan zehar asimilatzen baitira (Trianes, 2004). Horretarako, dramatizazioa formazio-ekintza esanguratsuenetakotzat jo daiteke (Nuñez eta Navarro, 2007), tradizioz, gurasoen nahiz irakasleen artean, eduki akademikotzat hartzen diren arloen alde egiteko joera nabaria den arren.

Aurrekoarekin loturik, curriculumak ez dio leku esplizitu handirik egin dramatizaziori, eta hainbat irakaslek hezkuntza formaletik kanpo jorrratu beharreko arlotzat dute. Alde horretatik, curriculumak moldatzeko

aldarria jaso dugu: dramatizazioa ikasleen garapen integrala gertatzeko tresna pedagogikotzat hartua izan izateko, beharrezkoa da dramatizazioaren gaineko oinarri teoriko adostua, gelaz gelako praktikan eragiteko (Andrés, 2005; Navarro, 2003; Navarro, 2006).

Haur Hezkuntzako irakasleen formazio egokia ezinbesteko auzia da, ikerlanean ikusi baitugu ahozko adierazpena egoki bultzatzea irakaslearen jarrerarekin estuki lotua dela. Adibidez, haurrei hitza ematen jakiteko, ongi prestatua behar du izan irakasleak, eta komunikatiboki trebe agertu beharra dauka egoera bakoitzean komeni diren estrategiak hartu ahal izateko. Gisa berean, irakasleak jakin behar du dramatizazioak eskura ditzakeen balio pedagogikoak identifikatzen eta horiekin lan egiten (Camino eta Zelaieta, 2014), ikasleen autonomia, ezagutza pertsonala, inguruaren ezaguera eta komunikazioa sustatzeko.

Baliabideei dagokienez, ipuina agertu zaigu komunikazioa era globalean lantzeko tresna nagusi, zeren eta ipuinaren bidez ikasleen hainbat trebetasun eta arlo landu daitezke: ahozko adierazpena, entzuketa aktiboa, dramatizazioa, hizkuntza erritmiko-musikala edota sormena, kontakizunak transmititzen dituen balioez landara. Elkarrizketetan ez ezik, praktikan ere ikusi dugu bi urteko gelako irakasleak nondik nora jardun duen ipuina kontatzean, gorputza, dantza eta interpretazioa baliatu baititu ahozko mezua indartzeko (Lopez, Jerez eta Encabo, 2010); horren ondorioz, giro motibatzaile eta atsegina sortu du, ikasleen alderdi psikologikoak eta sozialak garatzen lagunduz.

Ikasleekin jardunean behatu ditugun irakasleek oro har Hernandezek (2011) eta Sanzek (2005) aipatuak dituzten ezaugarriak eta estrategiak kontuan hartu dituztela ohartu gara. Horren adibide, urte bateko gelako irakaslearen azalpena izan da, irakaslea haurrak hainbat estrategiaren bitartez motibatzen saiatu baita, ikasleak azalpenaren partaide eginez, haien hitzak eta erantzunak kontuan hartuz eta indargarri positiboa eskainiz.

Horrenbestez, lanaren hasieran formulatutako hiru hipotesiak baieztatu dira: (i) ahozko adierazpena egunerokotasunean momentu guztietan presente dagoela; (ii) dramatizazioa askotan erabiltzen dela, baina oinarri teoriko finkorik gabe; eta, azkenik, (iii) dramatizazioa oro har ez da baliozko tresna pedagogikotzat hartzen hezkuntza-komunitatean, eta irakasle batzuek hezkuntza formaletik kanpo ere kokatzen dute.

Bestalde, zenbait egilek agertu duten bezala (Young, 2003; Rayna eta Laeversen, 2011; Vizcarra, 2014), ez dira oso ugariak 0-3 urte bitarteko haurrari buruz eginak diren ikerketak. Jakina denez, askoz informazio gehiago dago Haur Hezkuntzako bigarren zikloaz lehenbizikoaz baino. Alde horretatik, modu apalean izan bada ere, lehen zikloaren inguruko datu batzuk emateko moduan egon gara, eta bi zikloen arteko ezberdintasun zenbait agertu.

Bukatzeko, jakitun gara emaitzak zein bertatik ateratako ondorioak ezin direla unibertsalki estrapolatu, lagina sobera zabala ez delako. Edo-

nola ere, hezkuntza-ikerkuntzan lehen urratsak baliatzeko parada izan dugu: Haur Hezkuntzak dituen bi zikloez, ahozko adierazpenaz nahiz dramatizazioaz eta euskaraz. Etorkizunean lan honi segida emango dioten beste lan batzuk egiteko moduan egongo ahal gara, eta hemen jorratzerik izan ez ditugun alderdiei ere erreparatu.

*Jasotze-data: 2015/01/28*

*Onartze-data: 2015/03/22*

### **Abstract**

---

*This article, which is based on a Final Degree Dissertation deals with two ways of communication that teachers use in Infant Education: the oral expression and the dramatization. This project offers the opportunity to know the importance and benefits of these two ways of communication using them as educational resources. Likewise, the objective of this analysis is based on analyzing the importance and role of these two ways of communication in the educational practice. For it, the opinions and the contributions of five Infant Education teachers have been examined: what do they think about the oral expression and the dramatization? What is the importance of those two ways? How do they use them in their job? What strategies do they use? In conclusion, the paragraphs below show us how necessary teachers' oral expression and dramatization are in the learning process of Infant Education children.*

**Keywords:** *FDD, communication, oral expression, dramatization, Infant Education.*

---

*Este artículo se basa en un Trabajo de Fin de Carrera y versa sobre dos modos de comunicación que utiliza el profesorado en la etapa de Educación Infantil: la expresión oral y la dramatización. Este proyecto ofrece la oportunidad de conocer la importancia y los beneficios de estos dos modos de comunicación utilizándolos como recursos educativos. Asimismo, el objetivo de este análisis se sustenta en analizar el papel y la importancia de estas vías de comunicación en la práctica educativa para así poder reflexionar al respecto. Para ello, se han analizado las opiniones y las aportaciones de cinco profesoras de Educación Infantil: ¿Qué opinan sobre la expresión oral y sobre la dramatización? ¿Qué importancia tienen estos dos medios de comunicación? ¿Cómo los utilizan en su día a día? ¿Qué estrategias utilizan para ello? En conclusión, las siguientes líneas destacan la relevancia*

*de la expresión oral y la dramatización del profesorado en el proceso de aprendizaje de los niños de Educación Infantil.*

**Palabras clave:** TFG, comunicación, expresión oral, dramatización, Educación Infantil.

---

*Cet article est fondé sur un Projet de Fin d'Études et considère deux modes de communication utilisés par le corps enseignant en École Maternelle: l'expression orale et la dramatisation. Ce projet offre la possibilité de découvrir l'importance et les bienfaits de l'utilisation de ces moyens de communication dans un but éducatif. L'objectif en soit de cette analyse, est d'explorer le rôle et l'importance des ces méthodes en milieu scolaire, pour pouvoir y réfléchir. Pour cela, ont été analysé les opinions et les commentaires de cinq professeurs de maternelle: Que pensent-ils de l'expression orale et de la dramatisation? Comment les utilisent-ils au quotidien? Quelles sont leurs stratégies? En conclusion, ressort des lignes qui suivent la pertinence de l'utilisation de l'expression orale et de la dramatisation par le corps enseignant en École Maternelle.*

**Mots clé:** PFE, communication, expression orale, dramatisation, École Maternelle.

## ERREFERENTZIAK

- Andrés, C. (2005). La educación emocional en edades tempranas y el interés de su aplicación en la escuela. Programas de educación emocional, nuevo reto en la formación de los profesores. *Tendencias Pedagógicas*, 10, 109.
- Aznar, M. (2006). Fundamentos psicopedagógicos del Teatro en la Escuela: La dramatización como actividad globalizadora del aprendizaje y su inclusión en el currículum oficial. Objetivos generales. Helbidea: [http://www.catedu.es/escena/index.php?option=com\\_content&view=article&id=67:edagos-del-teatro-en-la-escuela&catid=20:teatro-y-escuela&Itemid=101](http://www.catedu.es/escena/index.php?option=com_content&view=article&id=67:edagos-del-teatro-en-la-escuela&catid=20:teatro-y-escuela&Itemid=101) Azken kontsulta: 2015eko urtarrila.
- Baquero, R. (1997). Vigotsky y El Aprendizaje Escolar. Helbidea: [http://bien-ser.umanizales.edu.co/contenidos/lic\\_ingles/desarrollo\\_cognitivo/criterios\\_conceptuales/recursos\\_estudio/pdf/baqueroje8-110827101114-phpapp01.pdf](http://bien-ser.umanizales.edu.co/contenidos/lic_ingles/desarrollo_cognitivo/criterios_conceptuales/recursos_estudio/pdf/baqueroje8-110827101114-phpapp01.pdf) Azken kontsulta: 2015eko urtarrila.
- Camino, I. eta Zelaieta, E. (2014). *Kubik antzezlan irakasleen formazioan*, in M.T. Vizcarrá (Koord.). *Kubik: antzezlan bat baino gehiago... Haur Hezkuntzarako proposamen artistiko-pedagogiko bat*. Bilbo: EHU.
- Cañete, M.M. (2009). La expresión corporal en la etapa de Infantil. El gesto y el movimiento. La expresión corporal como ayuda en la construcción de la iden-



- tividad y de la autonomía personal. Juego simbólico y juego dramático. Las actividades dramáticas. Helbidea: [http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod\\_ense/revista/pdf/Numero\\_25/MARIA\\_DEL\\_MAR\\_CANETE\\_PULIDO02.pdf](http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_25/MARIA_DEL_MAR_CANETE_PULIDO02.pdf) Azken kontsulta: 2015eko urtarrila.
- Clemente, R.A. eta Rosel, J. (2000). Relación entre el habla materna y la infantil en una tarea de interacción conjunta. *Revista de psicología general y aplicada*, 53, 401-412.
- Eusko Jaurlaritzza. (2009). *Haur Hezkuntzako Curriculum Dekretua*. Helbidea: <http://www.euskadi.net/bopy2/datos/2009/01/0900469a.pdf> Azken kontsulta: 2015eko urtarrila.
- García, V. (Koord.) (1996). *Enseñanzas artísticas y técnicas*. Madril: Ediciones Rialp.
- García del Toro, A. (1995). *Comunicación y expresión oral y escrita: la dramatización como recurso*. Barcelona: Editorial Grao.
- González, M.P. (2006). Valoración y función de la dramatización en la Educación Infantil y Primaria. Helbidea: [http://acceda.ulpgc.es/bitstream/10553/5474/1/0235347\\_02003\\_0005.pdf](http://acceda.ulpgc.es/bitstream/10553/5474/1/0235347_02003_0005.pdf) Azken kontsulta: 2015eko urtarrila.
- Hernández, M.C. (2011). Características de la expresión oral. Helbidea: <http://curso-coci-cecyt3.bligoo.com.mx/caracteristicas-de-la-expresion-oral#>. UtKIIfTuJSQ Azken kontsulta: 2015eko urtarrila.
- López Valero, A., Jerez Martínez, I. eta Encabo Fernández, E. (2010). *Claves para una enseñanza artístico-creativa: la dramatización*. Bartzelona: Octaedro.
- Motos, T. (2013). Psicopedagogía de la dramatización. Helbidea: <http://www.postgradoteatroeducacion.com/wp-content/uploads/2013/11/Piscopedagogia-de-la-dramatizaci%C3%B3n-Tom%C3%A1s-Motos.pdf> Azken kontsulta: 2015eko urtarrila.
- Motos, T. eta Navarro, A. (2003). El paper de la dramatització en el currículum. *Articles: Revista de didáctica de la llengua i de la literatura*, 29- 10-29.
- Navarro, M.R. (2003). La formación inicial del profesorado en las universidades públicas españolas para el uso de la dramatización en el aula. *Enseñanza & Teaching: Revista Interuniversitaria de Didáctica*, 21, 181-198.
- Navarro, M.R. (2006). El valor pedagógico de la dramatización: su importancia en la formación inicial del profesorado. *Creatividad y sociedad: revista de la Asociación para la Creatividad*, 9, 11-18.
- Núñez eta Navarro, M.L. (2007). Dramatización y Educación: aspectos teóricos. *Teoría de la educación*, 19, 225-252.
- Onieva, J.L. (2011). *La dramatización como recurso educativo: estudio comparativo de una experiencia con estudiantes malagueños de un centro escolar concertado y adolescentes puertorriqueños en situación de marginalidad* (doktorego-tesia, 2011 Malagako Unibertsitatean defendatua). Helbidea: [http://www.academia.edu/2553420/La\\_dramatizacion\\_como\\_recurso\\_educativo\\_estudio\\_comparativo\\_de\\_una\\_experiencia\\_con\\_estudiantes\\_malagueños\\_de\\_un\\_centro\\_escolar\\_concertado\\_y\\_adolescentes\\_puertorriqueños\\_en\\_situación\\_de\\_marginalidad](http://www.academia.edu/2553420/La_dramatizacion_como_recurso_educativo_estudio_comparativo_de_una_experiencia_con_estudiantes_malagueños_de_un_centro_escolar_concertado_y_adolescentes_puertorriqueños_en_situación_de_marginalidad) Azken kontsulta: 2015eko urtarrila.
- Pastor, J.L. (2002). El concepto de educación vivenciada y las posibilidades interdisciplinarias de las actividades físicas. *Pulso*, 25, 217-228.

- Pérez, M. (2004). La dramatización como recurso clave en el proceso de enseñanza y adquisición de las lenguas. *Glosas didácticas: revista electrónica internacional de didáctica de las lenguas y sus culturas*, 12. 70-80.
- Rayna, S. eta Laevers, F. (2011). Understanding children from 0 to 3 years of age and its implications for education. What's new on the babies' side? Origins and evolutions. *European Early Childhood Education Research Journal*, 19(2), 161-172.
- Rodríguez, G., Gil, J. eta García, E. (1996). *Metodología de la investigación cualitativa*. Málaga: Aljibe.
- Sanz, G. (2005). *Comunicación efectiva en el aula. Técnicas de expresión oral para docentes*. Barcelona: Editorial Grao.
- Trianes, M.V. (coord.) (2004). *Psicología de la educación y del desarrollo en contextos escolares*. Madrid: Pirámide.
- Trujillo, M.P. eta Guerrero, M.F. (2010). Diagnóstico de la expresión oral en el proceso enseñanza aprendizaje de lenguaje y comunicación. Helbidea: <http://repositorio.utn.edu.ec/bitstream/123456789/538/2/FECYT%20785%20TESIS.pdf> Azken kontsulta: 2015eko urtarrila.
- Van Dijk, T. (2000). *El discurso como interacción social*. Barcelona: Gedisa.
- Vallés, M.S. (2003). *Técnicas cualitativas de investigación social*. Madrid: Síntesis.
- Vizcarra, M.T. (Koord.) (2014). *Kubik: antzezlan bat baino gehiago... Haur Hezkuntzarako proposamen artistiko-pedagogiko bat*. Bilbo: EHU.
- Young, S. (2008). *Sticky fingers & toes project: Final report*. Devon, UK: University of Exeter.
- Zabaleta, I. (2005). *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia*. Bilbo: UEU.

## **1. ERANSKINA: BOST ETA HIRU URTEKO IRAKASLEEI EGINDAKO ELKARRIZKETAREN GIDOIA**

1. Nola ulertzen duzu ahozko adierazpena? Zer da zuretzat? Eta dramatizazioa?
2. Zein uste duzu dela horiek Haur Hezkuntzan duten papera?
3. Gaur egungo Hezkuntza sisteman, komunitatean, positiboki baloratzen direla uste duzu? Zergatik bai/ez?
4. Zure ustez, Haur Hezkuntzako curriculumean zein errealitatean mezezi duten tokia dute? Eremu nahikoa esleitzen zaie?
5. Zure eguneroko lanean agertzen dira? Zein momentutan erabiltzen duzu bakoitza? Nola?
6. Ahozko adierazpena eta dramatizazioa hobetzeko proposamenik baduzu?

## **2. ERANSKINA: BI URTEKO GELAKO IRAKASLEARI EGINDAKO ELKARRIZKETAREN GIDOIA**

1. Zein da, zure iritziz, ahozko adierazpenaren eta dramatizazioaren garrantzia eta erabilera Haur Hezkuntzako lehen zikloan?
2. Zein da edo izan beharko litzateke irakasleen papera alde horretatik?
3. Zure eguneroko lanean ahozko adierazpena zein dramatizazioa agertzen dira? Zein momentutan erabiltzen duzu bakoitza? Nola?